







# Irizar Jauregia

Jauregi honen jatorriko izena Urrutia–Espilla da, XVII. mendearen erdialdean Ignacio Urrutia eta Ana Espilla senar-emazteen aginduz jasotakoa baita, beste antzinagoko eraikuntza bat zegoen lekuan. 1778. urtean Irizar familiaren eskuetara pasatu zen eta senide honena izan da duela hamarkada gutxi arte. Jauregi honetan Bergarako Komenioa sinatu zen, Lehenengo Karlistadari amaiera eman zion hitzarmena.

# Antzinatasun-ospea batetik; Zilarra bestetik

Agirietan egiaztatu denez, XVII. mendearen hasieran etxea Espilla familiarena zen. 1659. urtean, etxeko alaba zen Ana Espilla Ignacio Urrutia kapitainarekin ezkondu zen; eta horrela, Lege Zaharrean edo Antzinako Erregimenean behin baino gehiagotan gertatu bezala, batu egin ziren aspaldiko jatorriko leinuaren izen ospetsua, batetik, eta diru-aberastasunak ematen duen ahalmena, bestetik. Izan ere, Ignacio Urrutiak —armadan karrera egin zuena, eta baita Sevillan eta Ameriketan negozio onak egin ere— dirutza ikaragarria ekarri zuen; eta Ana Espillak, berriz, etxea eta lurrak, herriko jatorria izateak ematen duen ospearen ikur gisa. Senar-emazteek berehala ekin zieten etxe zaharra goitik behera eraberritzeko lanei eta jauregi-izaera emateari. Horrela sortu zen gaur ikusten dugun jauregi ederra.



# El palacio Irizar

"Palacio Urrutia-Espilla" es la denominación original de esta construcción en la que se rubricó el Convenio de Bergara que puso fin a la primera Guerra Carlista. Fue a mediados del siglo XVII cuando el matrimonio formado por Ignacio de Urrutia y Ana de Espilla ordenaron su construcción en el solar que ocupaba una casona más antigua. En el año 1778 la mansión pasó a pertenecer a los Irizar, familia que ha mantenido la propiedad de la misma hasta hace pocas décadas.

# Prestigio y fortuna

Consta documentalmente que la casona que ocupaba este solar pertenecía, a comienzos del siglo XVII, a la familia Espilla. La heredera Ana de Espilla contrajo matrimonio, en 1659, con el capitán Ignacio de Urrutia; se unieron así, como ocurriera en más de una ocasión durante el Antiguo Régimen, el prestigio otorgado por un linaje de antiguo abolengo con la capacidad de obrar que da la posesión de una gran fortuna dineraria. Efectivamente, el capitán Urrutia —que había hecho carrera en la armada y buenos negocios en Sevilla y América —aportó al matrimonio una ingente cantidad de dinero; Ana de Espilla por su parte, la casa y sus terrenos, símbolos de un innegable arraigo prestigioso en la Villa. El matrimonio acometió con prontitud las obras para la remodelación integral de la casa y su conversión en un verdadero palacio. El aspecto general que el palacio Irizar muestra hoy en día corresponde a aquella época.





Bergarako Udala

EUSKADI








# Jauregia eta Lorategia: Alderdi artistikoak



# Palacio y Jardín: Aspectos artísticos

Irizar jauregia eraikin dotorea da, bolumetria irmokoa eta soiltasun-itxurakoa. Dekorazioa honako elementu hauetan biltzen da batez ere: balkoietako balaustreak —burdina forjatuzko lan bikaina—, ertzeko armarria —Barrenkale eta lorategi aldeetarako fatxadetako ertzean—, eta aberastasun handiz tailatutako egurrezko hegala. Barrualdean, berriz, gu gauden atari handi honetan bertan, azpimarratzekoa da eskailera aldera sarbidea ematen duen arku karpanel handia.

Etxeak, fatxada bati lotuta, antzinako lorategi eder bat du. XVII. mendearen bigarren erdian, Urrutia kapitainak eta Ana Espillak jauregiari dotoretasun berezia eman nahi izan ziotela-eta, antzinako etxeak zituen baratzetatik zati bat kendu eta lorategi bihurtu zuten. Loradegiaren traza diseinatzerakoan, oso kontuan hartu ziren garai hartako Europako kultur guneetan erabiltzen ziren dekorazio geometrikoaren errepertorio ospetsuenak.

Bai jauregiak, bai loratEgiak, monumentu-izendapena dute. Jauregiak 1964. urtean lortu zuen; loratEgiak, berriz, 2009. urtean.



El palacio de Irizar se nos muestra como una construcción elegante, de rotunda volumetría y aspecto sobrio que concentra los elementos decorativos fundamentalmente en los balaustres de los balcones —magníficos trabajos de hierro forjado—, en el escudo esquinero situado en la confluencia de las fachadas que miran a Barrenkalea y al jardín, y en el ricamente tallado alero de madera. En su interior destaca el gran arco carpanel de acceso a la escalera, arco que se sitúa en este amplio zaguán en el que ahora nos encontramos.

La casa posee, adosado a una de sus fachadas, un hermoso y antiguo jardín. En la segunda mitad del siglo XVII, el capitán Urrutia y Ana de Espilla decidieron, con el fin de dar singular elegancia al palacio, transformar una parte de las huertas que poseía la primitiva casa en jardín. A la hora de diseñar su traza se tuvieron muy presentes los repertorios decorativos geométricos más en boga en los círculos cultos de la Europa de aquella época.

Palacio y jardín poseen la calificación de monumento. Al palacio le fue otorgada dicha categoría en el año 1964, y en 2009 al jardín.






Bergarako Udala

EUSKADI

